



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMO/A. SR./A:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2024ko ABENDUAREN 11n**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **11 DE DICIEMBRE DE 2024**. Se dispondrá de acceso vía telemática, con el siguiente

GAI-ZERREDA**ORDEN DEL DÍA**

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Erabaki-proposamena, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SARI (Tabakalera) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, AZTG: Artea, Zientzia, Teknologia eta Gizartea proiektua finantzatzeko, Kultura eta Sormen Industrien (KSI) esparruan sormen-sektoreari laguntzeko, 2024an.

2

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Centro Internacional de Cultura Contemporánea, S.A. (Tabakalera), para la financiación del proyecto ACTS: Arte, Ciencia, Tecnología y Sociedad, de apoyo al sector creativo en el ámbito de las Industrias Culturales y Creativas (ICC), en el año 2024.

OGASUN ETA FINANTZA SAILA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Erabaki-proposamena, Finantzen Euskal Institutua ente publikora bideratutako funtsetan 55.000.000 euroko soberakinak daudela deklaratzeari buruzkoa.

3

Propuesta de Acuerdo sobre declaración de excedentes de fondos destinados al ente público Instituto Vasco de Finanzas, por importe de 55.000.000 euros.



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailerako eta erakunde autonomoetako lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua.

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinarazten duenaren gainean egon dadin.

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Erabaki-proposamena, SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzeko.

OSASUN SAILA

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko, Osakidetza-ekin sinatutako 2025eko programa-kontratuak finantzatzeko.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko, errezeta medikoen bidezko farmazia-prestazioari buruz Osasun Sailak farmazialarien elkargo ofizialekin 2025erako sinatutako itunari dagokiona.

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

Erabaki-proposamena, Gobernu Kontseiluaren 2021eko azaroaren 9ko Erabakia aldatzeko. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntza eman zitzaion Euskal Herriko Unibertsitateari, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea finantzatzeko, hainbat urtetarako inbertsio-planaren esparruan.

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

4 Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

5 Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

6 Propuesta de Acuerdo de cese y nombramiento de un miembro del Consejo de Administración de SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial.

DEPARTAMENTO DE SALUD

7 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación de los contratos-programa suscritos, para el año 2025, con Osakidetza-Servicio vasco de Salud.

8 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, correspondiente al concierto, para el año 2025, suscrito por el Departamento de Salud con los colegios oficiales de farmacéuticos, sobre la prestación farmacéutica a través de recetas médicas.

DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

9 Propuesta de Acuerdo de modificación del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 9 de noviembre de 2021, de concesión de una subvención directa a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para la financiación de la Facultad de Medicina y Enfermería dentro del plan plurianual de inversiones.

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

Erabaki-proposamena, zenbait toki-enterekin eta foru-enterekin sinatutako hitzarmen tipoa aldatzeko gehigarria baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Done Jakue Bideari atxikitako kultura-intereseko ondasunak turismo-erabilerarako mantendu eta birgaitzeko proiektu jasangarria gauzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU.

10

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la Adenda de modificación del convenio tipo suscrito con diversos entes locales y forales, para la ejecución del proyecto sostenible de mantenimiento y rehabilitación de uso turístico de los bienes de interés cultural afectos al Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco, enmarcado en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - financiado por la Unión Europea - Next Generation EU.

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Dekretu-proiektua, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

11

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

Erabaki-proposamena, Azti Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2024ko ekitaldian 3SLEKA Proiektua garatzeko: osagai seguru, osasungarri eta jasangarri berriak, lekadunen laborantzatik sortuak.

12

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Fundación Azti-Azti Fundazioa, para el desarrollo del Proyecto 3SLEKA: nuevos ingredientes seguros, saludables y sostenibles con origen en el cultivo de leguminosas, en el ejercicio 2024.

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Berriztu Hezkuntza Elkartearekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan eguneko zentroa laguntzeko neurriak gauzatzeko.

13

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con la Asociación Educativa Berriztu, para la ejecución de medidas de asistencia a centro de día en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Berriztu Hezkuntza Elkartearekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Bizkaiko Lurralde Historikoan eguneko zentroa laguntzeko neurriak gauzatzeko.

14

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con la Asociación Educativa Berriztu, para la ejecución de medidas de asistencia a centro de día en el Territorio Histórico de Bizkaia.

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

LEGEBILTZAR-EKIMENAK

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 9a.

En Vitoria-Gasteiz, 9 de diciembre de 2024.

IZPTA./Fdo.: UBARRECHENA CID, MARIA.
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU
KONTSEILUAREN 2024ko ABENDUAREN
11ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikokoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituenak. Erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Bilboko Arte Ederren Museoaren Administrazio Kontseilua dela eta, Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Ibone Bengoetxea Otaolea andrea ezin izango da fisikoki bertaratu Gasteizen egingo den bilerara.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA
QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE
GOBIERNO DE 11 DE DICIEMBRE DE 2024
SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

Con motivo de la celebración del Consejo de Administración del Museo de Bellas Artes de Bilbao, la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea, no podrá asistir físicamente a la reunión a celebrar en Vitoria-Gasteiz.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Horrenbestez,

En su virtud,

BAIMENA EMATEN DUT

AUTORIZO

1.- Gobernu Kontseiluak 2024ko abenduaren 11n egingo duen bilera telematikoki egiteko, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 11 de diciembre de 2024, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.-Vitoria-Gasteiztik eta Bilbotik telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideei ZOOM plataforma digitala erabiltzeko baimena ematen diet. Horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:

<https://euskadi.zoom.us/j/98847720734>

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente desde Vitoria-Gasteiz y desde Bilbao, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:

<https://euskadi.zoom.us/j/98847720734>

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko, egun horretako gai-zerrendarekin batera.

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 5ean.

IMANOL PRADALES GIL.

Lehendakaria.